

Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna da, emakumeen eskubideen aldarrikapenerako eguna. Historian zehar Mugimendu Feministak lortutakoa ospatu, eta egin denaren eta egiteko dagoenaren inguruan hausnartzeko eguna da. Honetaz gain, ezin dugu ahaztu martxoaren 8a borrokatzeko eguna ere badela. 2019ko greban parte hartzeko hamaika modu egon ziren: lantoki eta ikasgeletan greba egin, tokian tokiko mobilizazioetara joan, zaintza -lanak utzi eta amantalak balkoian eskegi, edota ez kontsumitu, besteak beste. Mugimendu feministak adierazi zuen bezala, “konpromiso politikoa” gogoan izanda beti ere.

Konpromiso politiko horrekin jarraitzeko, Aretxabaleta eta Eskoriatzako udaleetako emakume langileok greba egin genuen, eta diru hori herrira bueltatzea nahi dugu. Alde batetik, herriarekin ospatu eta guztiok batera hausnarketa prozesua jarrai dezagun. Eta bestetik, gure egunerokotasunean ikuspegi feminista inplementatu eta sustatzen jarraitu nahi dugulako martxan jartzen ditugun proiektu guztietan.

Horregatik guztiagatik, urriaren 11 eta 12an izango den *Aretxabaleta eta Eskoriatzako emakumeon topaketara* gonbidatzen zaituztegu.

Urriaren 11n LANKUren eskutik, “Ez da kasualitatea” bertso-saio musikatuaz gozatu ahal izango dugu, Eskoriatzako Zaldibar antzokian, arratsaldeko 19:00etan. Hiru bertsolari izango ditugu, Malen Amenabar Larrañaga, Nerea Ibarzabal Salegi eta Oihana Bartra Arenas eta haiekin batera, bi musikari, Gari Otamendi Arrieta gitarran eta Araitz Bizkai Villanueva bibolinean. Aurkezle lanetan Maite Berriozabal Berrizbeitia izango dugu. “Ez da kasualitate”ko saioetan bertsolariak eta gai-jartzailea emakumezkoak izaten dira eta hortik datorkigu izenburua, oraindik, zoritxarrez, gizonezkoz osaturiko saioak baino ez baitira kasualitatez izaten.

Urriaren 12an, berriz, 2 ekitaldi izango ditugu. Goizean gure inguruko sendabelarrak ezagutuko ditugu EKOUDALATX-en eskutik. Horretarako, 09:00etan Aretxabaletan elkartuko gara mendi buelta bat egiteko, eta ondoren praktikan jarriko ditugu gure emakume arbasoen ezagutzak eta bakoitzak prestatutakoa eramango du etxera. Izen ematea ezinbestekoa izango da, ondorengo posta elektronikora idatziz: berdintasuna@aretxabaleta.eus. Arratsaldean, beste ekitaldi bat izango dugu: “Nomofobikak: sarean kateatuak” antzezlan, Amaia Lizarralde eta Olatz Beobiderek. Gaur egungo gure bizimoduak izan ditzaken kontraesanetan begirada jartzea du helburu eta honez gain, ikusleen irribarrea atara-ta, burmuina astintzea. Antzerkia Aretxabaletako kultura arloak antolatu du eta Arkupe kultur etxean izango da, arratsaldeko 7etan.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako udaletako emakume langileok ekimen horietara joateko deia luzatzen dizuegu.